

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Nor aberasten da Afganistango mitxoletez?

Amerikako Estatu Batuek Afganistan inbaditu zutenetik opio salerosketa izugarri handitu da. Talibanek eta bertako jauntxoek gerrarako erabiltzen dutelako ote, komunikabide nagusiek dioten moduan? Alderantziz: Mendebaldea dago trafikoaren atzean, hala diosku Michel Chossudovsky ekonomialariak.

MICHEL CHOSSUDOVSKY ekonomialari kanadarra da, Otawako unibertsitatean irakasle, eta hizkuntza askotara itzulitako liburuak idatzi ditu. Ezagunenak, “Guerres et Mondialisation: A Qui Profite Le 11 Septembre?”, “The Globalization of Poverty” eta “America's 'War on Terrorism'”. Aldizkari aurrerazaleetan ere argitaratzen ditu artikuluak, eta Globalizazioaren Ikerketarako Zentroaren zuzendaria da; honen webgunea *Global Research* da eta ingelesez bezala frantsesez irakur daiteke.

Irakurleak aurreko guztia jakin behar du, ohar dadin ez dela panfletogile *ganchista* bat honako ideia publikoak defendatu dituen: Afganistan amerikarrek inbaditu zutenetik urritu ez baizik eta izugarri handitu da munduan heroina trafikoa, eta hori espreski ari dira bultzatzen Mendebaldeko potentziak. *Global Research*en titulu hau ipini dio Chossudovskyk maiatzeko artikuluari: “Gerrako harrapakina: Afganistanen milaka milioi dolarreko heroina trafikoa”. Eta azpitu-tituluak: “Washingtonen ezkutuko agenda: droga trafikoa berriz ezartzea”.

Nazio Batuen Erakundearen Droga eta Krimenari buruzko Bulegoak (UNODC, ingelesezko sigletan) plazaratutako informazioetatik abiatu da Chossudovsky: 2003an 80.000 hektarea soro zeuden Afganistanen mitxoleta (opiotarako erabiltzen den landarea) ereinda, eta horietatik 3.600 tona opio ekoiztu zen. 2004an 120.000

hektarea izan ziren. Chossudovskyk dioenez “koru baten antzo, AEBetako komunikabideek hango erregimen islamiar hondoratua egiten dute errudun, eta ez dute sekula aitortzen talibanek –Nazio Batuen Erakundearekin elkarlanean– 2000.ean mitxoletak ereitea debekatu zutela. 2001erako %90 urritu zen opio produktzioa. Eta egia zera da, opioa ereiten berriro hasi zirela AEBek talibanak boteretik kendu zituztenean”.

UNODCen datuetan, 2001ean 185 tona opio besterik ez zuen produzitu Afganistanek; aldiz 2000.ean 3.300 tona zituen ekoiztiak, eta aurreko urtean 4.700 tona. Nazio Batuen Erakundearen batzar orokorrean eskaini ziren xifra hauek, Kabulgo gobernua-ri zorionak emateko.

Inbasioarekin, ordea, NBEk bere argudioak aldatu egin ditu, eta 2004an AEBek horretarako presio handia egin ondoren deklaratu zuten, 2000.eko opio murrizte hori ez zela izan erradikazio kanpaina garbi bat, mundu osoan heroinaren prezioa artifizialki garestitzeko maniobra baizik. Talibanen maniobra makiabelikoa, alegia. Hala ere, sekula ez da aurkitu hori justifikatuko zukeen opio-biltegi-rik Afganistanen, eta hala aitortu zuen UNODCk berak.

Michel Chossudovskyk oso beste-lako esplikazioa dauka Afganistanen gertatu dena ulertzeko. “Heroina

Argazki hau *The Washington Post* egunkariak ipini zuen bere orrietan: Afganistango parajeren batean, opioa ekoizteko darabilten mitxoleta soro baten erdian soldadu yankia, urrunagotik militar gehiago eta kazetariak begira dituela. *Papaver somniferum* landarez ereindako hektareak sekula baino ugariagoak dira, eta komunikabide nagusiek –Afganistanen esku hartu duten gobernuen esanari jarraiki– diote horietatik ateratako heroina talibanek eta lekuko gerrako jauntxoek darabiltela, indar militarra ordaintzeko. Michel Chossudovsky beste iritzi batekoa da. Aditu honentzako, talibanek kasik deusezteza lortu zuten labore hori berriro Mendebaldeko botereek eta batik bat CIAk indartu dute, bere jarduna finantzatzeko behar duen diru beltza sortzeko ahaleginean. Afganistanen amerikarrek ipinitako Hamid Karzai lehendakaria bera CIAko agente izana omen da.

milaka milioi dolarreko negozioa da, interes boteretsuek sustatua, eta lehengaien joan-etorri egonkor eta ziurra behar du. Hain zuzen, gerraren helburu ‘ezkutuetako’ bat horixe zen, CIAk babestu duen droga trafikoa berriro ezarri eta aurreko produktio mailara igotzea, drogaren ibilbideak zorrotz kontrolatzeko”.

Lortu dute. 2001ean AEBek Afganistan inbaditu ondoren, opio merkata “normaldu” egin zen. Opioa izugarri garestitu zen: bi urte lehenago baino 10 bider karioago pagatu zen 2002an. Talibanekin 2001ean 185 tona opio ekoiztu zen, eta Hamid Karzai lehendakariarekin 2002an 3.400 tona.

Heroinaz gerra sekretuak ordaindu

Afganistanen opioa eskualdeko konsumorako baizik ez zen ereiten 1979 arte. Baina orduan piztu zen sobietar inbasoreen kontrako gerra, eta –dio Chossudovskyk– “Afganistan narkotikoei lotutako ekonomia izatea CIAk zehatz planifikatu eta AEBen atzerri politikak sustatu zuen”. Hori frogatzen duten datuak, besteak beste, “Iran-Contra” afera famatuaren auzian azaldu omen ziren. Alegia, errusiarrei gerra egiten zieten mujahidinei CIA eskaintako laguntza drogaren dirua zurrutuz bideratu zela, horretarako banku oso garbiak eta CIAk berak antolatutako kamuflaje-ko konpainiak erabiliz.



egin du Chossudovskyk. Zeren eta Afganistango heroina nekazariari ordaintzen zaionaren 100 halako pagatzen baita nazioarteko merkatu beltzean. Opio bildu berria kiloko 350 dolarretan pagatzen zen 2002an. New Yorken urte hartan %62ko purutasuna zeukan heroina gramo 112-153 dolarretan pagatzen omen zen, DEA famatuaren kontuetan. Prezioak hiri batetik bestera aldatzen dira, noski.

Kontuak egiten hasita, 2003an Afganistanen sortutako 3.600 tona opioek 1.000 milioi dolar emango zien laborariari, eta 1.300 milioi bertako trafikatzailerari. Hortik aurrera, “monoa” baretzeko behar duen gizona eskutara iritsi bitartean, adulteratze eta garestitze prozesu oso bat jarriko zen martxan. Eta ororen buru, zenbat diru mugiaraziko zuten 3.600 tona horiek?

Egin diren kalkuluen artean, Chossudovskyk sinesgarriena Britainia Handiko poliziak ezagutarazitako prezioen gainean eraikia dela uste du, eta kopuru hau ematen: 80.000 milioi dolar. Afganistango heroinak soilik. Baserritarrei ordaindutako 1.000 milioiak kendu eta kontatu behar dira tratalariak, inteligentzia zerbitzuak, krimen antolatua, bankuak, handizkako saltzaileak, trapitxeroak... etekin erraldoi hori banatzeko.

Dirutza hori guztia gero paradisu fiskaletan garbitu eta inbertitutako da etxegintzan, hoteletan, zerbitzu enpresetan, industrian, burtsako produktuetan, gobernuen zor publikoan... Labore txit emankorra da Afganistango lo-belarra. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php>
helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.

Garai hartan Pakistan eta Afganistanen muga inguruko eskualde eta soroak bihurtu ziren munduko heroina ekoizle nagusiak. AEBetako eskariaren %60 asetzen zuten. Erosle gehiago behar zenez, 1979an kasik heroinomanorik ez zeukan Pakistanek 1985erako 1,2 milioi zituen. “Mujahidinek Afganistango lurraldeak berenganatu ahala, nekazariak opioa ereitera behartu zituzten, zerga iraultzaile moduan, eta heroina ekoizteko milaka laboratoriorik funtzionatzen zuten Pakistango inteligentzi zerbitzuen babesean.

Honetan guztian gakoa zera da: droga trafikoa munduan mugitzen dituen etekinak ez dabilzala oso urrutiko armen salerosketak eta petrolioarenak sortzen dituztenetatik. Nazioarteko Moneta Funtsak kalkulatu du munduan urtean

590.000 milioi eta 1,5 bilioi dolar arteko dirutza beltzak garbitzen direla. Horien zati handi bat narkotrafikoari dagokio. “Narkotrafikoa –dio Chossudovskyk– ez da egokia talde terrorista eta gerrako jauntxoentzako, esaten denaren alderantziz. Narkotikoen atzean enpresa eta finantza interes oso handiak daude. Alde horretatik, drogaren garraibideen kontrol geopolitiko eta militarra petrolioarena bezain estrategikoa da”. Narkotikoen inguruko dirutza kriminalitateak sortzen du, CIAren babesean, eta hori Mendebaldeko bankuek zuzitzen dute paradisu fiskalak erabiliz. “Komertzio honek ezingo luke aurrera egin ‘oso goian kokatutako lagun politikoak’ eduki gabe”.

Afganistango soroetako mitxoletak haluzinazioez gain irabazi handiak eragiten dituzenez, hauen analisisa ere



Produkturik onenak,
Zinkunegi Optikan

Aukerarik zabalena
betaurreko graduatu,
ukipen-lente,
audiofono eta
eguzkitako
betaurrekoetan.

ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 4 - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL.: 943 420 624

K A L I T A T E A